

Herritarrek euskararekin «match!» egitera deitu dituzte

Martxan da irailaren 20ra arte Aitzol Udal Euskaltegiko matrikulazio kanpaina; maila, gaitasun eta maiztasun ezberdineko taldeak jarriko dituzte herritarrentzat eskura //2

XX. Azoka berezia hartuko du Ibarrek igandean, piperra protagonista delarik

Villabonan Irrintzi elkarteak antolatuta egingo dute azoka berezia, eta Aiztondoko zortzi elkarte hartuko dute parte Isats Gisatuaren XXIV. Lehiaketan //5-6

Minbiziaren Aurkako Elkartearekin, erretzeari uzteko terapia

Adikzioari aurre egiteko taldeak sortuko dituzte Tolosan, eta saioak doakoak izango dira; Terapia egin duen %62k amaitu duela esan dute //2

Hirugarren izan da Ander Barandiaran amasarra, Gazta Txapelketan

Lekarozko Julen Arburuak errepikatu du lehen postuan, eta bigarren saria, berriz, Joseba Intsausti ordiziarrarentzat izan da, 46. Lehiaketan //4



IMANOL GARCIA LANDA

«Partidaz partida joango gara aurten, helbururik jarri gabe»

JON IRAOLA TOLOSA ESKUBALOIKO ENTRENATZAILEA

Trantsizio urtea izango da Tolosa Eskubaloientzat; Bederatzi jokalarik utzi dute taldea, eta entrenatzaile berriak harrobiaren aldeko apustua egin du //7

ataria**ko** arkua
zure herriko
jai edo kirol ekitaldietan
erabili nahi baduzu
eskatu doan:

ataria@ataria.eus • 943 65 56 95



«Euskararekin match!» egiteko deia, Tolosa euskalduntzeko asmoz

Abian da Aitzol Udal Euskaltegiako matrikulazio kanpaina; irailaren 20ra arte dago izen emateko aukera. Lehen aldiz, autoikaskuntzako aukera ere eskainiko dute C2 mailan.

Josu Artutxa Dorronsoro

Aitzol Udal Euskaltegiak, euskaraz hitz egiten ikasteko edo euskaraz maila hobetzeko aukera eskainiko die herritarrei ekainera bitarte. Ikasturtea irailaren 23an hasiko dira, eta hilaren 20ra arte dago izena emateko aukera. Maila, gaitasun eta maiztasun ezberdineko taldeak izango dira: aurrez aurrekoak, autoikaskuntzakoak, alfabetatzekoak, agiriak lortzen laguntzekoak edo etorkinentzako ikastaro bereziak.

Atzoko matrikulazio kanpainaren aurkezpenean, «Euskaltegia herritarrek euskalduntzeko funtsezko erreminta dela», adierazi zuen Olatz Peon Tolosako alkateak. «Udalari dagokio herritarrei euskaraz ikasteko erraztasunak ematea, Tolosa gero eta herri euskaldunagoa izan dadin», nabarmendu zuen. «Erabileraren sustapenean jarri behar dugu indarra. Tolosaldeko Euskararen Mahaiak lagunduko digu bide hori egiten, eta elkarlanean lortuko digu Tolosa eta eskualdea euskararen arnagunea izatea».

«Euskararekin match!» egitera bultzatu nahi dituzte herritarrek. Hori da aurtengo leloa. Axun Lopetegik Aitzol Udal Euskaltegiako zuzendariaren hitzetan, «euskararekin bat egin, elkartu, eta euskaraz bizi eta biziarazteko aukera eskainiko dugu. Geroz eta gehiago dira euskaraz



Rondilla kaleko 34 zenbakiko hirugarren pisuan eman daiteke izena. J.A.

egiten dakitenak, baina batzuk zaila dute euskaraz bizitzea».

Herritarrek euskarara erakartzeari, euskaraz erabili dezaten sustatzea, eta euskaldun berrientzat nahiz etorri berrientzat euskaraz integratze bide izan dadin baliabideak eskaintzea dira kanpainaren helburuak. «16 urtetik gorako edonork eman dezake izena, izan kanpotarra, erretiro-duna, merkataria edo agiri ofiziala lortu nahi duen edonork», gogorarazi zuen Lopetegik. Iaz, emaitza oso onak izan zituzten Euskaltegian. 267 ikaslek eman zuten izena, eta 17 talde osatu zituzten; gainera, 84 ikasle aritu ziren autoikaskuntzan. Guztietatik, batez beste, %80ak lortu zuen zegokion agiria.

Eskaintzari dagokionez, aurreko ikasturtekoa mantenduko da. Gutxienez 8 lagunek talde-

ak izango dira, arestian aipatutako baldintzen arabera banatuta. Gainera, ikasleen maila egiaztatze azterketa ofizialak egiteko aukera ere eskainiko da A1 (Hasierakoa), A2 (Oinarrizkoa), B1 (Independentea), B2 (Aurreratua), C1 (Gaitasuneko) eta C2 (Adituarena) mailatan. Azken horretan, gainera, autoikaskuntzarako aukera ere izango da, lehen aldiz. Lopetegik azaldu zuen dagoeneko EGA kendu egin dutela eta HABEK hartu duela bere gain. «Aurrerantzean, C1 titulua izango da, eta azterketa egiteko, bi deialdi egongo dira». Hain justu, HABEK nahiz Tolosako Udalak diru-laguntza ezberdinak emango dizkiete baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten Euskaltegiako ikasleei.

Epe luzera begira, Aitzol Euskaltegiako arduradunek, eskualdeko herri txikietan ikastaro taldeak sortzea nahi dute. Gainera, urtean zehar Galtzaundik bultzatzen duen Mintzalaguna egitasmoan eta 2020an bigarren aldiz burutuko den Euskaraldia ariketa soziolinguistikokoan parte hartzera animatu nahi dituzte herritar euskaldunak.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Ile-apaintzailea. Tolosaldean lan egiteko ile-apaintzailea behar da. Interesa dutenek, 619 592 949 telefono zenbakira deitu dezakete.

Erretzeari uzteko terapia bidezko taldeak sortuko dituzte

Adikzioari aurre egiteko taldeak osatuko dituzte Tolosan; saioak doakoak izango dira. Hamar urtetan, hamabi puntu jaitsi da EAEko erretzaileen kopurua.

J. Artutxa Dorronsoro

Adikzioa sortzen duen zerbait uzteko lehen urratsa ematea, ez da erraza izaten. Are zailagoa da, baina, lehen pauso horri jarraitzea ematea. Hain justu, hori da Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteko (AECC) kideen asmoa. Kasu honetan, tabakismoan harrapatuta daudenei irtenbide bat eman nahi diete. Horrela, erretzeari uzteko taldeak antolatu dituzte, Tolosan.

Saioak doakoak izango dira, hau da, ez da erakundeko bazkide izan behar. Elkartek Tolosan duen egoitzan (Emeterio Arrese kaleko 2. zenbakian) gauzatuko dira terapia saioak, eta tabakismoan aditua den psikologo batek zuzenduko ditu. Banakakoak nahiz taldeak izan daitezke; egunak eta orduak, berriz, taldea osatzean erabakiko dira. Saioetan parte hartzeko interesa duenak 943 652 143 zenbakira deituz eska dezake informazioa.

Lehenik, erretzaile bakoitzak aurretiazko elkarrizketa bat egin du, eta bertan aztertzen dute erretzeari uzteko modu onena eta asteko saio kopurua; izan ere, pertsona bakoitzaren egoera eta behar berezien arabera aldatu

egiten da. Saio horietan pazientearen mendekotasun fisiko eta psikologikoari arreta berezia eskaintzen zaio, eta erretzeko ohitura sustatzen duten estimuluen kontrolari aurre egiteko estrategiak lantzen dira.

LAGUNTZA, MUGIKORREAN

Maidier Sierra AECC Gipuzkoako psikologo eta prebentzio arloko arduradunaren hitzetan, «arrakasta pertsona bakoitzaren arabera den arren, frogatuta dago kanpoko laguntza profesionala jasotzeak asko handitzen dituela erretzeari uzteko aukerak». Iaz, Gipuzkoan terapia egin zuten pazienteen %62k amaitu zuten prozesua arrakastaz.

Bestetik, elkartek mugikorreko aplikazioaren bertsio eguneratua aurkeztu berri du oraindik erretzen duten herritarrei tabakoa uzten laguntzeko: *RespirApp*. AECCren Minbiziaren Behatokiaren arabera, EAEn bizi den herritarren %78 ez erretzailea edo erretzaile ohia bada ere, oraindik %22k erretzen jarraitzen du; 2009an erretzaileen kopurua %34koa zen. Hortaz, datuen arabera, agerikoa da azken urteetan erretzaile kopuruak izandako beherazko joera.

David Guaporen bakarriketa, Leidor aretoan, urriaren 4an

TOLOSA // David Guapok umorea, musika eta inprobisazioa nahasten dituen *Que no nos frunjan la fiesta* bere azken bakarriketa saioa aurkeztuko du, urriaren 4an, 20:30ean, Leidorren. Sarrera gutxi geratzen badira ere, www.vitaminproducciones.com webgunean daude salgai, 22 euroren truke. Askorentzat, nazioarteko bakarriketari onenatariko bat da Guapo.

Oihana Ugarteren grabatu erakusketa, hilabetez, 3 tabernan

TOLOSA // Tolosako Oria kaleko 12. zenbakian dagoen 3 tabernak, urtean zehar egin bezala, kultur ekintzak antolatzen jarraitzen du. Oraingoan, Oihana Ugarte Iriarte artistak aurten egindako grabatuak jarri dituzte ikusgai, erakusketa batean. Atzo arratsaldean izan zen inaugurazio ekitaldia, eta nahi duen orok, urriaren 13ra bitarte izango du margolanak ezagutzeko aukera.



Natura eta artea uztartuz

Azken Muga ekimenak natura eta artea lotzen jarraitzen du laugarren urtez. Oraindik ekitaldi sorta zabala dago aurretik, irailaren 22an aurtengo egitaraua itxi arte.

Irati Urdalleta Lete Tolosa

Sei aste igarota, natura eta kultura uztartzen dituen Azken Muga jaialdiaren laugarren edizioa azken txanpan sartu da. Uztailaren 25ean hasi eta irailaren 22ra arte iraungo duen jaialdiak Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko harremana bultzatzea izan du helburu, bien arteko muga hausteko.

Antolatzaileek adierazi duteenez, Euskal Herri osoan ez dago beste jaialdirik hainbeste ekin-tza kultural aire librean eskaintzen dituenik. Gaineratu dute aurtengoa izan dela ediziorik anitzena. Izan ere, arte diziplina desberdinak leku berean ikusteko aukera egon da: kontzertuak, eskulturak, pinturak, dokumentalak, bertsolariak, antzerkia, dantzak...

Orain arteko ekin-tzen balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Eguraldia izan dute areriorik okerre-na. Horren ondorioz, hasieratik, Zarate gainean egitekoak ziren hainbat ekin-tza eskualdeko beste leku batzuetara aldatu behar izan dituzte.

Txondorra piztuz hasi zuten Azken Muga, uztailaren 22an. Ohitura zaharrak berreskuratu nahi izan zituzten horrela. Izan ere, Aralarren hori egin ohi zuten. Mikel Lander ikazkin nafarrak izan zuen horren ardura. Gainera, bertsolarien, txistularien eta trikitilarien laguntza ere izan zuen eta performance bat ere egin zuten. Izan ere, hori izan da aurtengo edizioaren beste helburuetako bat: dantza tradizionalak eta garaikideak uztartzea.

Txorimaloak izan ziren egun horretako beste protagonistak. Izan ere, txorimaloen erakusketa bat ikusteko aukera egon zen Zaraterako bidean. Asteburuan berreskuratuko dute protagonismo hori, haurrentzako txorimalo tailerra egingo baitute, Zarate bidean jartzeko.

Beraz, ostiraletik aurrera ere, egongo da zertaz gozatua Zarate gainean. Ostiralean, *Crazy Jazzers* taldeak jazz kontzertua eskainiko du 19:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, Lizartzara aldatuko dute. Ikustera joan nahi

duenak ez du ordaindu beharrik izango.

Larunbaterako, berriz, bertso eguna antolatu dute. 11:00etan hasiko da egitaraua, gazta probaketarekin. 12:30ean, Araitzeko eta Amezketa-ko gazteen arteko herri kirol saioa izango da. 16:30ean iritsiko da eguneko ekin-tzarik garrantzitsuenetakoa. Sebastian Lizasok, Alaia Martinek, Unai Mendizabalek, Ane Labakak eta Joanes Illarregik bertso saioa eskainiko dute, Zarate gainean. Eguraldi txarra egingo balu, aldiz, Abaltzisketan egingo da.

Hurrengo egunean, hurrei zuzendutakoa izango da ekin-tza. 11:00etan hasita, txorimaloak egiten ikasiko dute eta Zaraterako bidean jarriko dituzte. Mugaren alde bateko nahiz besteko haurrak gonbidatu nahi izan dituzte parte hartzera. Euria eginez gero, Ugarteko frontoian egingo da ekin-tza.

Oraindik data zehazteko bada-egon ere, irailaren 20an edo 27an Ekain Martinez de Lizarduyren *Erraiak* dokumentala emango dute. Irrintziari buruzkoa da eta horiek botatzen ikasteko aukera ere egongo da, Altxoko emakume talde baten eskutik.

Irailaren 21ean, Et Inkarnatus orkestrak kontzertua eskainiko du. Antolatzaileek adierazi dute-nez, Migel Zeberioaren orkestra klasikoetako bat bihurtu da Azken Muga. 2016an egin zen bezala, aurten ere Zarateko pagadian egiteko asmoa dute. Azken bi urteetan, Arribeko elizan egin zuten, baina txiki geratu zen hainbeste jenderentzat. Aurten, eguraldi txarra egingo balu Amezketa-ko elizan egingo litzateke. Musika-riei dagokienez, berrikuntzak egongo dira kontzertuan. Duela bi urte, esaterako, Izarok, Pettik, Niko Etxartek, Alex Sar-duik eta Gorka Sarriegik hartu zuten parte.

Igandean, iritsiko da urte honetako berrikuntza nagusietako bat. Izan ere, antzerkia egingo dute, lehenengo aldiz. Hain zuzen ere, Mutrikuko Abarka taldearen *Ortentsia izan nahi dut antzez-lana* egongo da ikusgai, 18:00etan. eguraldiak uzten badu, Zarateko pagadian egingo

da eta bestela, Azkarateko elizan.

ERAKUSKETA ZABALIK

Baserrian nekazaritzarako erabili izan diren tresnak ezagutzeko aukera ere egongo da Zarate-txean. Asteburu guztietan zabalik

egongo da, irailaren 22ra arte. Zehazki, ostiraletan 17:00etatik 19:00etara egongo da irekita, larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta igandeetan 11:00etatik 13:00etara. Zarate gainera hurbiltzeko aitzakia ugari daude, beraz.



Zarate bidean txorimaloen erakusketa jarri dute. JON MIRANDA



Txondorra piztu ondoren hasi zen Azken Muga. JON MIRANDA

EGITARAUA

Irailak 13, ostirala

19:00. *Crazy Jazzers* taldearen jazz kontzertua, Zarate gainean. Eguraldi txarra eginez gero, Lizartzan izango da. Sarrera doakoa izango da.

Irailak 14, larunbata

Bertso eguna

11:00. Gazta dastaketa.

12:30. Araizko eta Amezketa-ko gazteen arteko herri kirol saioa.

16:30. Bertso saioa: Sebastian Lizaso, Alaia Martin, Unai Mendizabal, Ane Labaka eta Joanes Illarregi bertsolari-ekin. Eguraldi txarra eginez gero, Abaltzisketan egingo da.

Irailak 15, igandea

11:00. Zarateko bidean jartzeko txorimaloak egiteko tailerra egingo da. Euria egingo balu, Ugarteko frontoian egingo litzateke. Interesa duten mugaren alde bateko nahiz besteko haurrak gonbidatuta daude.

Irailak 20 edo 27, ostirala

Irrintziari buruzko Ekain Martinez de Lizarduyren *Erraiak* dokumentalaren emanaldia. Horrez gain, Altxoko emakume batzuek irrintziak botatzen ikasteko ikastaro bat ere eskainiko dute. Data eta ordu zehatza laster egingo dira publiko.

Irailak 21, larunbata

Et Inkarnatus Orkestrak kontzertua eskainiko du, Zarateko pagadian. Eguraldi txarra eginez gero, berriz, Amezketa-ko elizan egingo da. Musika-riei dagokienez, hainbat sorpresa egongo direla aurreratu dute.

Irailak 22, igandea

18:00. Mutrikuko Abarka taldeak *Ortentsia izan nahi dut* antzez-lana egingo du, Zarateko pagadian. Eguraldi txarrekin Azkarateko elizan egingo da.

Irailak 22ra arte

Zaratetxean, garai bateko baserriko eta nekazaritzako tresnen erakusketa bat egongo da jarrita. Asteburuetan irekiko dute. Hain zuzen, ostiraletan 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik, larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Igandeetan, berriz, 11:00etatik 13:00etara egongo da ikusgai.



BESTE SARI BAT, URA ITURRALDERENTZAT

Ura Iturralde argazkilari profesionalak nazioarteko saria irabazi du Iranen ateratako argazki sortarekin. LGTBI komunitatearen inguruko argazki erreportajea egitera Iranera joan zen iazko urrian, eta IPA International Photography Awards lehiaketako Begirada Sakonaren Argazki Profesionalaren Saileko hirugarren saria lortu du *Hidden Iran* izeneko lanarekin. Bangladeseko K M Asad izan da lehen sailkatua eta Belgikako Alain Schroederrek lortu du bigarren saria. URA ITURRALDE

Ikastaroetako izen ematea ireki du Ikaztegietako Udalak

Pilates eta zumba egiteko aukera jarri du udalak, eta adinekoei begira martxan jarriko ditu Tipi Tapa ekimena eta Memoria Tailerra

Eneritz Maiz Etxarri
Ikaztegieta

Ikaztegietako Udalak herritarrak kirola egitera animatu nahi ditu ohitura osasuntsuak sustatuz. Pilates eta zumba eskainiko dira kiroldegiko gimnasioan.

Interesatuek izena hilaren 18a baino lehen eman beharko dute udaletxera joan eta matrikula orria betez. Izena ematen duenak ikasturte osorako konpromisoa hartzen du. Taldea aurrera ateratzeko gutxienez sei pertsona eman beharko dute izena. Pilates astelehen eta asteazkene-

tan egingo da 09:30etik 10:30era, eta zumba, asteazken eta ostiralean 15:00etatik 16:00etara. Prezioa taldeko kideen arabera izango da.

TIPI TAPA, OSTEGUNETAN

Iaz martxan jarri zen Ikaztegieta Tipi Tapa ekimenak arrakasta izan zuen, eta aurten ere herritarrak ariketa fisikoa egitera animatu nahi ditu udalak. Egun alaketarekin hasiko dira, hilaren 19tik aurrera. Ostegunetan izango da, eta 09:45ean izen ematea egin ondoren, 10:00etan abiatuko dira bi ibilbidetan banatuta.

Ondoren, hamaiketako izango da parte hartzaile guztientzat.

Tipi Tapan boluntario lanetan aritu nahi duenik bada herrian udaletxean izena eman beharko du, eta horretarako azken eguna biharkoa dela jakinarazi dute.

Bestetik, Memoria Tailerra ere martxan jarriko du udalak. Hilaren 17tik aurrera astearte eta ostegunetan elkartuko dira udaletxean. Bizi kalitatea hobetzea, eta etorkizunean eman daitezkeen nahasteak zaindu eta atzertzea ditu helburuen artean tailerrak. Izena emateko eguna bihar amaitzen da.

Txakolinari egingo diote gorazarre larunbatean, Amasan

AMASA // Txakolin Eguna egingo dute, larunbatean, Amasan, Uxo Tokik antolatuta. 16:30ean, herri kirol saioa izango da Zizurkil eta Amasa taldeen arteko desafiorekin. Ondoren, Irene Caminos trialeko txirrindulariak erakustaldia egingo du. Behin 17:45etik aurrera, txakolina izango da izarra. Bost euro ordaindu beharko da, eta txakolin dastaketaz gain bi pintxo izango dira bakoitzarentzat. Getariko txakolinaren izendapeneko txakolin guztiak dastatzeko aukera izango da.

Gaur hasiko dira eztarriak berotzen Txintxarri taldean

ALEGIA // Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzak ikasturtea hasteko prest daude. Gaur egingo dute urteko lehen entsegua kultur etxean. Urtea bukatu bitarte dituzten proiektuak eta emanaldiak prestatzen hasiko dira. Bi taldeek ostegunetan egingo dituzte entseguak, eta Garbiñe Orbegozo herritarren zuzendaritzapean ariko dira. Txikienak 19:30etik 20:30era, eta helduenak, 21:00etatik 22:30era ariko dira kantuan. Abestea gustuko dutenek izena eman dezakete.

Ander Barandiaran amasarrak hirugarren saria lortu du

Lekarozko Kortaria gaztandegiak irabazi du bigarren jarraian, eta bigarren, Joseba Intsausti ordiziarra izan da

Erredakzioa Amasa-Villabona

Ordiziako Euskal Jaiei barruan, egun handia izan zen atzokoa, besteak beste, 46. Gazta Txapelketa egin baitzuten. Ander Barandiaran amasarrarentzat izan da bertan hirugarren saria. Gaztainaditxulo gaztarekin lortu du, hain juxtu, hirugarren postuan sailkatzea. Aurkeztu diren 47 gaztarekin lehiatu behar izan du Idiazabalen bizi den amasarrak.

Txapelketako irabazlea, eta bigarren urtez saria eskuratu duena, Lekarozko Kortaria gaztandegia izan da. Julen Arburua artzainaren gazta izendatu du, beraz, epaimahaiak lehiaketako gaztarik onena. Bigarren saria, berriz, Joseba Intsausti ordiziarrentzat izan da. Bestalde, Enkantean, 9.000 euro ordaindu ditu Donostiako Beti-Jai Berri jateko Pablo Sotok bere gazta erdiagatik.



SEBAS OMENDU DUTE

Tolosa CF taldeak aurkezpen torneo irabazi du. Sebas Osi alde nesken taldeko kidea omendu zuten, eta bere izena jarri zioten hiruko torneoari. Omenaldi hunkigarria eta berezia egin zioten Osinalderi, besteak beste, bi txapel oparituz. Añorga eta Logroño taldeak izan ziren Tolosarekin batera torneoan parte hartu zutenak. Tolosak 2 eta 1 irabazi zion Añorgari. Añorgak 3-1 irabazi zion Logroñori, eta Tolosak 3-0 irabazi zuen Logroñoaren aurkakoa. Jokalari onena Elene Arruabarrena Tolosa taldekoa izendatu zuten. ATARIA



ORIA



BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12 · 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com

Elkarteen arteko lehia: isats gisatu goxoena nork prestatu

Irrintzi Elkartek antolatuta, azoka berezia ospatuko dute larunbatean, Villabonan; Aiztondoko zortzi elkartek hartuko dute parte Isats Gisatuaren XXIV. lehiaketan

Irati Salzar Amasa-Villabona

Iristear da Villabonako Irrintzi Elkartek urtero antolatzen duen azoka berezia. Irailaren 14an izango da, larunbatean, Txermin auzoko Zubimusu ikastolaren egoitza azpian. 09:30etik 14:00etara ospatuko da eta, tartean, Aiztondoko elkartearen arteko XXIV. Isats Gisatu lehiaketa ere egingo dute.

Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Iparralde eta Erriberatik etorritako postuak izango direla azaldu du Mikel Ayestaran Irrintzi Elkarteko lehendakariak: «Denetarik egongo da: herriko merkatariek ere postuak jarriko dituzte, eta gozoak, frutak, gazta, ogia, kontserbak, bitxiak eta bestelako produktuak eskuratzeko aukera egongo da».

Momentuz, 35 postu inguru jarriko dituzte eta horietatik hiru hoberenek saria jasoko dute. Goizean zehar, «nahi adina pin-



laz ere mota guztietako produktuak aurki zitezken azoka berezian. ASIERIMAZ

txo eta edari» izango direla baieztatu du Ayestaranek.

ISATS GISATU HOBERENA

Aurten ere jarraipena emango diote Isats Gisatu lehiaketari, eta aurtengoa hogeita laugarrena izango da. Aiztondoko zortzi elkarte ezberdinek hartuko dute parte edizio honetan: Zunbeltz, Behar Zana, Urkamendi, Txulobi, Aiztondo, Ubane, Beertoki eta

Irrintzik. Iazko edizioan, Behar Zana elkarte izan zen gisatu goxoena prestatu zuena, eta aurten ere ez da lehiarik faltako.

Epaile lanetan, sukalde munduari lotutako lau herritar arituko dira: Arantxa Goia, Elena Lazkano, Eneko Amondarain eta Gorka Eguren. Hauen lana, 12:00etan hasiko da eta balorazioak amaitu ostean ekingo diote sari banaketari.




elduaiein
hizkuntza eskola • academia de idiomas

Hizkuntzak hitzak baino gehiago diren tokia!

-  Mailaren araberako hizkuntza ikastaroak
-  3 urtetik aurrera, gazte eta helduentzat, talde murriztuetan
-  Metodologia dinamikoa, dibertigarria eta parte hartzailea
-  Cambridge Assessment English zentro aztertzaile ofiziala
-  Familientzako deskontu interesgarriak!

Tarifa berriak haurrentzat!

- 1 ELDUAIEN GOROSABEL
- 2 ELDUAIEN NAFARROA ETORBIDEA
- 3 ELDUAIEN MARTIN JOSE IRAOLA
- 4 ELDUAIEN KONDEKO ALDAPA



Irun  • Donostia: Intxaurrondo (2) + Ondarreta + Gros  • Lasarte (2)
Urnieta • Andoain • Villabona • Tolosa (4) • Alegia • Beasain

943 67 47 33 kondeko@elduaiein.com www.elduaiein.com

Antzerkia, yoga eta dantza ikastaroak, denen eskura

I.S.A. Anoeta

Anoetako Udalak antzerki tailerra eskainiko du ikasturte osoan zehar, eta yoga ikastaroa, berriz, irailaren 30etik abenduaren 20ra izango da.

Haurrek nahiz helduek izango dute antzerkia ikasteko aukera; haurrentzat astearteetan izango da, 18:30etik 20:30era. Helduak, berriz, astelehenetan ariko dira, 19:00etatik 21:00etara. Urteko kuota 95 eurokoa izango da.

Yoga ikastaroa arratsaldean zein goizez eskainiko da, eta aukeran egongo da zein egunetan joan: astelehenetan 17:00etatik 18:30era, astearteetan 09:30etik 11:00etara, asteazkenetan 18:30etik 20:00etara eta ostegu-

netan 17:00etatik 18:30era. Aste-an behin joaten denak 72 euro ordaindu beharko ditu, eta astean bitan joan nahi duenak 144.

Bi ikastaroetan izena emateko azken eguna irailaren 25a izango da eta udaletxean edo liburutegian egin daiteke. Prezioetan, %25eko hobaria izango dute Anoetan erroldatutakoek eta, gainera, familia ugaria direnek, gazte txartela dutenek, langabetuek, ikasleek, pentsiodunek eta 60 urtetik gora dituztenek.

DANTZA IKASTAROA

Anitz dantza taldean izena emateko epea ere zabaldu dute: irailaren 25a izango da azken eguna, eta udaletxean, liburutegian edo infokultura@anoeta.eus helbi-

dera idatzita egin daiteke. Hona-koa da aurtengo eskaintza: heldu hasi berrientzat, astean 1,5 ordu, 95 eurotan; plaza dantzak, astelehenetan, 15:15etik 16:45era, 95 eurotan; ballet klaseak 6-12 urteko haurrentzat, astean ordubete, 65 eurotan; dantza garaikidea ostegunetan, 18:30etik 20:00etara, 95 eurotan; entrenamendu funtzionala dantza garaikideko tekniken bidez, 18 urtetik gorakoenzat, astean bi ordu, goizez.

LOATZOKOAK MARTXAN

Ikasturtea hastearekin batera jakinarazi dute musika eskolaren bulego orokorra herriz aldatu dutela, eta hemendik aurrera Anoetako Solkorre kalea 4 behean egongo dira.

Piperra izango da protagonista igandean, Ibarako kaleetan

Ibarako XX. azoka berrikuntza ugarirekin dator: besteak beste, Arane baserrira bisita, 'show cooking' erakustaldia eta 'piperboom' desafioa antolatu dituzte

Iratzi Saizar Artola Ibarra

Hogei urte daramatza Hauspoa elkarteak Ibarako azoka berezia antolatzen, Xepla elkartearen laguntzarekin. Euskal Herria kalean jartzen ziren postuak bere hastapenetan, eta herriko gune ezberdinetara zabaldu da azken urteetan. Aurten ere, Emeterio Arrese parkean, San Bartolome plazan eta Arane iturri inguruetan prestatuko dituzte guneak.

Igande honetan azoka gune bilakatuko da Ibarra, eta beste urte batez, protagonista nagusia bat eta bakarra izango dute: Ibarako piperra. Azoka horretan, bertako produktuak erosteko eta ikusteko aukeraz harago, hainbat lehiaketa ere antolatzen dituzte piperraren bueltan: Ibarako Piperraren Euskal Herriko Lehiaketa Gastronomikoa egiten dute, batetik, Euskal Piper Topaketa, bestetik, eta Tolosaldeko Ezti Lehiaketari ere egiten diote lekua.

Hogei urte daramatzate azoka antolatzen, eta antolatzaileek esan dute urte kopuru horrekin azoka «egonkortu» egin dela, «egonkortu bai, baina ez da geldirik geratu, urtero legez, berrikuntzak izango baititugu». Berrikuntzen artean, Arane baserrira bisita, *show cooking* erakustaldia eta *piperboom* desafioa izango dituzte.

Arane baserrira egingo den bisita gidatuan, baserri horretan sortu duten piper gorriaren hau-



Iazko azoka eguneko irudia, Emeterio Arrese parkean. I.S.

tsa ezagutu eta piperraren ekoizpenaren berri izango dute bertaratzen direnek. Aurrez izena eman beharko da aranebase-rria@gmail.com helbidean.

Bestetik, *show cooking* erakustaldia eskainiko dute Emeterio Arrese parkean, 12:15ean. Piperak sukaldean eduki litzakeen aukera ezberdinen berri emango dute saio horretan.

Azken berrikuntza gisan, *piperboom* desafioan parte hartze-
ra bultzatu nahi dituzte herritar-
rak; 13:30ean izango da, hau ere, Emeterio Arresen. Desafio horretan, minutu bat izango dute parte hartzaileek ahalik eta piper gehien jateko. Tartean, gainera, pikanteak ere toka daitezke.

LEHIAKETAK

Ibarako piperraren Euskal Herriko Lehiaketa Gastronomikoa, ikusmin handia sortzen duen ekitaldietako bat da, eta Euskal

herri mailan geroz eta ezaguna-
goa egiten ari da. Aurten, hama-
bosgarrenez jokatu da. Lehiakideek Ibarako piperraz eginda-
ko sei pintxo aurkeztu beharko dituzte, hotzak zein beroak. Piperra osagai nagusia izanik, sormenari tarte eskaintzeko momentua izango da, izan ere, horiez gain, zortzi Ibarako Gilda prestatu beharko dituzte, ozpin ez onduta eta txotxean sartuta.

Epaimahai lanetan, Roberto Ruiz, Matias Gorrotxategi, Sonia Tapia, Juanjo Mendiroz eta Hilario Arbelaitz arituko dira.

Azokaz gain, piperraren elkar-guneetako bat Ibarra izatea nahi dute antolatzaileek: «Garrantzitsua deritzogu Euskal Herrian ekoizten diren piper desberdinak jendeari erakustea». Hori horrela, azoka eguna aprobetxatzen dute Euskal Herriko hainbat piper ezagutzera eramateko. Euskal Herriko Piperraren X. to-

paketaren helburua da hori, eta Ibarako piperrez aparte, Gernikakoa, Ezpeletakoa, biper ezti eta pikilloa ezagutzeko aukera egongo da.

Horiez gain, eta piperretatik urrunduta, Tolosaldeko XXII. ezti lehiaketa jokatu da, eta erlea, erlezaintza eta erlauntza materialen erakusketa ere jarriko dute.

HIRU GUNE

Guneei dagokienez, bi lehiaketak eta topaketa Emeterio Arrese parkean izango dira, eta Ibarako baserrietako produktuak ere bertan dastatzeko eta erosteko aukera egongo da.

Abereek ere izango dute euren lekua. Arane iturriaren inguruan jarriko dituzte ikusgai.

Hirugarren gunean, San Bartolome plazan, artisauek eginiko lanak, argazki eta pintura erakusketak eta beste izango dira. Horien artean, papera eskuz egiteko tailerra eskainiko du Marino Ayala ingeniari teknikoak, batetik, eta bestetik, Aita Mari itsas salbamendu humanitario-kideak bertan izango dira mediterraneoan egiten duten lanari buruzko informazioa zabaldu eta euren lana finantzatu ahal izateko materiala saltzen.

Azoka eguna borobiltzeko, San Bartolome plazako estalpean bazkari herrikoia egingo dute. Txartelak salgai daude 25 euroren truke Galtzaundin, Atarin, Txumitxan eta Danon Txokoan.

Igandean ospatuko dute Izaskun izena dutenen eguna

IBARRA // Ohiturari eutsiz, Izaskun izena dutenen eguna ospatuko dute igandean, Ibarako Izaskun auzoan. Mezarekin ekingo diote egunari, 10:45ean. Ondoren, pintxo-potea egingo dute, eta toka txapelketa jokatu ostean, Izaskun Jatetxean bazkalduko dute. Jarraian, dantzaldia izango dute Iñigo Perurenaren eskutik. Ostirala baino lehen eman beharko da izena, 943 675 927 zenbakira deituta.

Alurreko ikasle ohiekin bilera egingo dute irailaren 20an

IBARRA // Alurr dantza taldeak 25 urte beteko ditu hurrengo urtean, eta hori ospatzeko, Alurren ibilbidean parte hartu duten dantzariak elkartu nahi dituzte berriro, oholtzan. Omenaldiaren parte izan nahi duenak, irailaren 20an, 19:00etan, Lokal Zaharrean egingo den bilerara joatea besterik ez du egin beharko. Bilerak horretan, besteak beste, entseguen egutegia eta iraupena zehaztuko dira.

Zabalik da Belabietako ikastaroetan izena emateko epea

IBARRA // Irailaren 20a izango da Belabieta kiroldegiko neguko ikastaroetan izena emateko azken eguna. Honako ikastaroak eskainiko dituzte: cycling, pilates, zumba, tonifikazioa, hipopresiboak, total training eta yoga. Ikastaro horiek 16 urtetik gorakoentzat izango dira. Bestetik, hirugarren adinekoentzako ikastaro bat ere prestatu dute. Tasak eta ordutegiak udaleko webgunean kontsulta daitezke.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

«Aurtengoa trantsizio urte bat izaten ari da; talde oso gaztea dugu»

JON IRAOLA
TOLOSA ESKUBALOIAKO ENTRENATZAILEA

Bederatzi jokalarik utzi dute gizonezkoen lehen taldea, eta bere ardura hartu duen Jon Iraolak harrobiaren aldeko apustua egin du. Usabalen «partida politak» ikusiko direla dio.

Imanol Garcia Landa

Tolosa CF Eskubaloia klubeko gizonezkoen talde nagusiak, lehen maila nazionalekoak, irailaren 21ean hasiko du liga, Tolosa-ko Usabal kiroldegian, 18:30ean, Zaragozako El Pilar Maristas taldearen aurka. Aurtengoa aldatetako izango dira, eta horietako bat entrenatzaile postuan dago, Jon Iraolak (Ibarra, 1980) hartu baitu taldearen ardura.

Gogoan duzu lehen taldeko entrenatzaile izateko eskaintza jaso zenuen unea?

Tolosa Eskubaloian urte asko daramatzat, zuzendaritzan eta saltza guztietan. Ikustean Alex Noguesek azken urtea izango zuela, pentsatzen nuen niri egokituko zitzaidala rol hau hartzea. Ezusteko handia ez zen izan. Bai hartu nuela hausnarketarako tarte bat, horrelako maila duen talde bat hartzea ardura handia delako, eta baita lana eta dedikazioa suposatzen duelako. Behin erabaki hartuta, aurrera egitea tokatzen da.

Zer suposatu du Alex Noguesek,

sek, aurreko entrenatzaileak, Tolosa Eskubaloientzat?

Alex Noguesi eskerrak eman urte hauetan egin duen lanarengatik, historia Kristo aurretik eta ondoren idazten den bezala, Tolosan eskubaloia Alexen aurretik eta ondoren idatziko baita.

Lehen taldeko jokalaririk izan zinen, Nogues berarekin bat eginez, eta entrenatzaile izan zara baita klubeko beste taldeetan.

Bera etorri zen lehenengo urtean oraindik jokalaririk bezala nengibilen. Ez nintzen maila handiko jokalaria, bai urte askotan aritutakoa. Jokalaririk izateari utzi aurretik hasia nintzen entrenatzen, eta ondoren ere jarraitu nuen. Maila guztietan aritu naiz entrenatzen, aurreko urtean, esaterako, Euskal Ligako jubenil mutilak entrenatu nituen.

Jubenilekin denboraldi berezia izan zen iazkoa, ezta?

Oso talde polita geneukan. Urte hasieran bagenekien aukera handia izango genuela Espainiako Txapelketara sailkatzeko, eta urtean zehar egindako lanaren



I.G.L.

ondoren, iritsi zitzaigun saria: bigarren egin genuen Euskadin, Alacantera joatea tokatu zitzaigun, eta oso ondo aritu ginen bertan.

Lehen taldearekin nola izan da hasiera?

Berreraikitze bat egitea izan da, kirurgilari lana egin behar izan dut. Aurreko urtean txapelduna izan zen taldea ligan eta gero Malagan igoera fasea jokatu zuen. Aurtengoa trantsizio urte bat izaten ari da, bederatzi jokalaririk utzi baitute taldea. Aurreko denboraldian titularra zen jokalarietatik bakarrarekin geratu gara; gainontzekoek, beraien arrazoiengatik, bai urte asko daramatzatelako jokatzeko edo eskubaloia ez dutelako lehentasun bezala ikusten, uzteko erabakia hartu dute. Bestalde, Zarautzek Iker Ortiz fitxatu du, zilarrezko mailan jokatzeko. Hori guztia ikusita, hartu dudako erabakia

izan da azpitik ditugun jokalariei aukera ematea. Talde oso oso gaztea dugu, eta ilusio handiko proiektua. 24 urte azpitik dituzten jokalaririk guztiak aurretik nik entrenatu izan ditut, beraz, nik baino hobeto ez ditu inork eza gutzen.

Esan daiteke trantsizio hau egiteko pertsona egokiena zirela.

Ez dakit nik hori esatea egokiena den, baina baietz pentsatzen dut. Kanpotik entrenatzaile berririk bat etorri izan balitz, aurreko lana jokalariek ezagutzea izango zen. Eta hamasei urteko mutiko bati ez dakit konfiantza emango zion. Nik badakit jokalaririk bakoitza zer emateko gai den. Ondo ezagutzen ditut eta beraiek ere badakite nire joko estiloa nolakoa den.

Hain justu, zein izango da zure joko estiloa? Noguesek zuenaren antzekoa?

Oso ezberdina da. Alexen joko kontrerasoa eta azkar igotzea zen, eta estatikoan joko zuzena egitea. Nire joko estatikoan elkarrekin asko jokatzeko da, asko gurutzatzea, eta korrika ez dugu egiten gola sartzeko, korrika egiten dugu defendatzeko. Oinarrian, joko ezberdina da, futboleko Guardiolen eta Clementeren estiloen arteko ezberdintasuna bezala; Guardiola *tika-taka* da eta Clemente baloiari ostikoa eman eta aurrera. Ni Guardiolen aldekoa naiz gehiago.

Nola bizitzen ari zarete taldean eta klubean aldatetako hauek guztiak?

Hasieran zalantza pixka batekin; hainbeste jokalaririk garrantzitsu joan ondoren, ea zer egiteko gaitzen pentsatuz. Eta hasieratik mutilak oso gustura datoz entrenatzera, ehuneko ehun ematen dute entrenamendu guztietan, eta emaitzak ere ikusten ari dira. Lau partida jokatu ditugu denboraldi-aurrian, bi irabaziz, bat berdinez eta bestea galduz. Baikor gaude, konfiantzarekin, baina jakinda ere oso talde gaztea dugula, eta momentu zailetan eskarmentua faltako zaigula. Beraz, denok pazientzia izan behar dugu. Orain hazi bat jartzen ari gara, eta nik kimu berdeak ikusten ditut, baina oraindik hazi egin behar dira. Nik uste dut partida politak ikusiko ditugula aurtengo Usabalen, borrokatuak. Eta pizgarri hori ere izango da: hamasei urteko mutikoekin ariko garela jokatzeko 30 urteko jokalarien aurka.

Helbururik zehaztu duzue denboraldi berrirako?

Ni uste dut hankak lurrean izan behar ditugula, eta ezin ditugu helburuak jarri. Maila mantentzeko lasai ibiliko garela uste dut. Gero, noraino iritsi gaitzeko? Ba partidaz partida joan behar dugu, aurreko neurketan izan ditugun arazoak konponduz. Pixkanaka joan behar dugu.



TOLOSA CF ESKUBALOA TALDEKO PARTAIDEAK

Jon Iraola. Ibarra, 39 urte. Entrenatzailea.
Estanis Arsuaga. Tolosa, 30 urte.
Asier Zubiria. Tolosa, 24 urte.
Mikel Mindegia. Irun, 24 urte.
Kepa Letamendi. Andoain, 24 urte.
Dani Mendinueta. Tolosa, 23 urte.
Ander Uranga. Tolosa, 23 urte.
Julen Garcia. Ibarra, 22 urte.
Aitor Garcia. Tolosa, 19 urte.
Unai Sanmartin. Tolosa, 19 urte.

Iraitz Zudaire. Tolosa, 19 urte.
Haritz Mayorga. Tolosa, 19 urte.
Iker Elola. Tolosa, 18 urte.
Haitz Gorostidi. Tolosa, 18 urte.
Pablo Segoviano. Zaragoza, 18 urte.
Markel Caballero. Tolosa, 18 urte.
Ibon Alustiza. Tolosa, 18 urte.
Beñat Gibelalde. Tolosa, 17 urte.
Jonan Etxeberria. Tolosa, 17 urte.
Gaizka Sanz. Anoeta, 17 urte.
Xuban Otero. Anoeta, 16 urte.



OSTEGUNA, 2019KO IRAILAK 12
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosako egutegirako bozka emateko unea

‘Auzoak’ da egutegirako gaia eta 342 argazki aurkeztu dira Tolosan Klisk lehiaketara; herritarrek bozka emateko unea da



Aurtengo lehiaketara aurkeztutako argazkietako bat. ATARIA

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak urtero argitaratzen duen egutegiaren 2020 urteko gaia *Auzoak* izango da. Argazki bilketa Tolosan Klisk lehiaketaren bitartez egiten da azken urtetan, eta azaldu dutenez, 342 argazki jaso dituzte aurtengorako. Epaimahaiak horietatik 40 argazki aukeratu ditu, eta orain herritarren txanda da, bozka bidez, horietatik gustukoena aukeratzeko.

Epaimahaiak aukeratutako 40 argazkiak ikusgai daude

www.tolosa.eus webgunean eta irailaren 21era arte izango da bozka emateko aukera. Bozka ematen dutenen artean tablet bat ere zozkatuko dute.

Herritarren artean bozka gehien jasotzen duen argazkia egutegiko azaleko argazki nagusia izango da. Epaimahaiak, berriaz, hilabete bakoitzeko argazki bana aukeratzeko arduraz izango du. Irabazleentzat hainbat sari jarri dituzte. Irabazleak 600 euro eskuratuko ditu, eta gainerako 12 finalistek 200 euro.

Bozka emateko aukera iraila-

ren 21era arte izango da, eta irabazleen berri irailaren 26an emango dute. Bozketan parte hartu dutenen arteko sariaren zozketa ere irailak 26an izango da. Behin irabazleen berri emanda, egutegiak azaroaren 6an, 7an eta 8an banatuko dituzte.

Lehiaketari buruzko xehetasun guztiak www.tolosa.eus webgunean Tolosanklisk atalean daude. Informazioa gehigarria jaso nahi duenak kultura@tolosa.eus helbidera idatzi dezake edo bestela, 943 67 03 83 telefono zenbakira deitu.

OSTEGUNA 12

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Elena Odriozolaren ilustrazioak eta Gustavo Puertaren hitzak dituen *Etxean barrera* liburuaren aurkezpena GKO Galleryn, 18:00etan.

Tolosa. Garagardo festa, Zerkau-sian. Ate irekiera 18:00etan.

Tolosa. Design thinking ikastaroa, Lehiberri zentroan, 09:00etan. Ga-koak emango dira, enpresaren berrikuntzaren metodologia lantzeko.

Zinema

Tolosa. *Sombra* filma, Leidor antzokian, 19:15 eta 21:45ean, jatorrizko bertsioan.

Erakusketak

Ibarra. Marce Tenaren marrazketa, pintura eta adierazpen artistikoa tailerreko lanak, kultur etxean.

Tolosa. *Speeltheater Holland* Topic-en, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Tolosa. Riq Miuq artistaren *Las sombras bajo las estrellas* erakusketak GKO Gallery-n.

Tolosa. Oihana Ugarteren grabatuak 3 tabernan.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. Hiri baratzea

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Ajoarrieroa

22:30. Platopic

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada, Korreo, 20. 943 676013.

Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza, Amarotz auzoa, 9. 943 675118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA




Gaur. Eguraldi egonkor eta lasaia izango dugu gaurkoan. Goiz partean, oraindik, hodei dezente agertuko dira, baina, eurrarako joerarik ez dugu izango. Arratsalde partean ostarteak zabalagoak izango dira, eta eguzkiak gozatzeko aukera izango da. Haizeak ipar-ekialdetik joko du, eta tenperaturak gora egingo du koxka bat. 20-22 graduetan joko dute goia termometroek eguneko erdiko orduetan.



Bihar. Oso eguraldi polita espero da. Eguraldi egonkor eta eguzkitsua izango dugu. Goiz partean behe lainoa agertuko da, baina, segituan altsako du, eta egun osoa zehar giro eguzkitsua mantenduko da. Haizeak ipar-ekialdetik edo ekialdeko ukituarekin joko du eta tenperatura maximoa 23-25 gradura igoko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



Zorionak!

Egun guztia saldu eta saldu zabilza eta mende erdira horrela iristeko sekretua saltzen al dezu?

ZORION AGURRAK

943 65 56 95

ataria@ataria.info

San Esteban 20

Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

NEOI TOLOSA Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas
ENGLISH - FRANÇAIS
MATRIKULA
Irailaren 1etik 18ra
(13:00ak arte)
1. fasea
72,36 €

Klaseak goiz edo arratsalde
Elkarrizketetan ama-hizkuntzadun irakasleak
Informazio gehiagorako jarri gurekin harremanetan
EOI TOLOSA HEO - Paper Kalea, 1- Tfno.: 943 69 75 60
20400 TOLOSA www.eoitolosaehe.hezkuntza.net / eoitolosa@gmail.com